



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Gasteizen, 2013ko abenduaren 13an

BILDU DIRA

Alde batetik, CRISTINA URIARTE andrea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako (HABE) erakundearen presidentea

Eta bestetik, ANDRES URRUTIA jauna, Euskararen Akademiaren burua.

AZALTZEN DUTE

LEHENENGOA.- Euskaltzaindia Euskal Herri osoko erakundea da, 1918. urtean sortua, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez.

Erakunde horren helburu nagusiak dira, hain zuzen ere, euskara ikertzea, arautzea eta haren erabilera sustatzea.

BIGARRENA.- Hego Euskal Herrian, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak Euskararen Errege Akademia gisa aitorten ofiziala eman zion erakunde horri; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Ipar Euskal Herrian, Euskaltzaindiak onura publikoko aitormena du, 1995. urteko otsailaren 20ko dekretuaren arabera.

1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoko 18/1986 Euskarari buruzko Foru Legeak beren-beregi aitortu dute Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala dela, euskarari dagokionez. Harrezkero, 272/2000 otsailaren 25eko Errege Dekretuaren bidez aldatu eta eguneratu dira Euskaltzaindiaren estatutuak.

HIRUGARRENA.- HABE Eusko Jaurlaritzako Autonomiadun erakunde bat da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari atxikia, bere legezko nortasuna duena, Eusko Legebiltzarraren 29/1983 Legeak sortua.

Erakunde honen xedeak ondoko hauek dira, hain zuzen ere: helduen alfabetatze eta euskalduntzerako curriculuma diseinatzea eta egikaritzea, ikasmaterialak sortzea eta homologatzea, irakasleak etengabe prestatzea, argitalpenak sortzea eta kudeatzea, hizkuntza-gaietan espezializaturiko liburutegia gizarteari eskaintzea, euskaltegi publiko eta pribatuen jarduera eratzea eta diruz laguntzea, euskara ikasteko eta hobetzeko tresnak ikasleei eskaintzea eta ikasteko diruz laguntzea, ikas eta irakas prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa ahalbidetzea, bai eta euskalgintzako erakunde eta elkarteekin elkarlana bilatzea ere.

LAUGARRENA.- Euskaltzaindiak eta HABEk, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Etxeberri egitasmoa dela eta, lankidetzaz hitzarmena izenpetu zuten 2009ko apirilaren 23an. Hitzarmen horrek urtebeteko iraupena izan zuen. Nolanahi ere, harrezkero luzatua izan da, alderdietako batek espresuki salatu ez duelako, hitzarmenaren hirugarren xedapenean jasorikoaren arabera.

Orain, bi erakundeek 2009ko apirilaren 23an irekiriko lankidetzaren bestelako eremuetan ere gauzatzeko borondatea dutenez, beren-beregi hitzarmen berri bat egiteko adostasuna erdietsi dute.

Horiek horrela izanik, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean Euskaltzaindiaren zein HABEren helburuak betetzeko xedearekin, bi erakundeok, bakoitzaren prozedura-arauak onartuz, ondokoa

HITZARTZEN DUTE

LEHENENGOA.- HABEk aitortzen du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala.

BIGARRENA.- Euskaltzaindiak aitortzen du, HABE erakundeak egiten duen lana, bereziki euskararen jakitean, sentiberatzean eta erabileraren eremuan egiten diharduena.

HIRUGARRENA.- Bi erakundeon arteko elkarlana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatuko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere.



LAUGARRENA.- Egitasmo hauetan Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarririko arauak eta proposaturiko gomendioak zabaltzeko konpromisoa hartzen dute bi erakundeok.

BOSGARRENA.- HABEk antolatzen dituen ikastaro, jardunaldi, mintegi, aholkularitza, eta bereziki hizkuntzaren jakiteari zein erabilerari dagokien prestakuntzan, Euskaltzaindiaren

gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabilerari buruzko irizpideak aintzat hartu eta hauek zabaltzeko moduak landuko ditu.

SEIGARRENA.- HABEK Euskaltzaindiari egingo dizkio gramatika, lexiko, ortografia, onomastika eta euskalkien erabileraren inguruko kontsultak eta iradokizunak, eta Euskaltzaindiak kontsulta horiei erantzuna eman edota bideratuko ditu. Bi aldeek finkatuko dituzte kontsulta horiek egiteko mekanismoak. Nolanahi ere, halakoetan teknologia berrien erabilera sustatuko da, ikusgarritasuna eta erabiltzaile potentzialeari erraztasunak emateko.

ZAZPIGARRENA.- Era berean, aipatutako arloetan sortzen diren hutsune eta beharrak jaso eta Euskaltzaindiari jakinarazteko konpromisoa hartzen du HABEK.


**ZORTZIGARRENA.-** Bi erakundeok publikatzen dituzten argitalpenak elkarri trukatzeko konpromisoa hartzen dute. Era berean, bi erakundeen artean argitalpen-egitasmoak partekatuko dituzte. Adostutako argitalpen-egitasmo bakoitzean finkatuko dira xehetasunak, finantzabideak barne.

BEDERATZIGARRENA.- 2009ko apirilaren 23an izenpeturiko hitzarmenari segida emanez, Euskaltzaindiko Azkue Biblioteka eta HABE erakundeko HABE Liburutegiaren artean lankidetzaren egitasmoak garatzeko konpromisoa berresten dute bi aldeek. Lankidetzaren hau ikerketa-egitasmoak ahalbidetzera, barneratzen dituzten funtsen zabalkundea egitera eta funtsen trukea segurtatzera bideratuko dira, batez ere. Garatuko diren lankidetzaren eremuak urtero zehaztuko dira, lankidetzaren hitzarmen honetan jasoriko Jarraipen batzordearen bidez.

HAMARGARRENA.- Bi erakundeok euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean egitasmoak partekatzeko konpromisoa hartzen dute. Urteko jarduketa-planean zehaztuko dituzte erakunde biek eremu honen garabidean jarriko dituzten egitasmoak, finantzabideak barne.

HAMAIKAGARRENA.- Erakunde biok egoitza nahiz azpiegitura erabiltzeko aukera elkarri eskaintzeko asmoa agertzen dute, adosten dituzten ekintzetan baliatzeko. Adostutako ekintza hauetaz ahalik eta zabalkunderik handiena egiten ahaleginduko dira, bereziki hedabideetan zein teknologia berrietan. Egoitzen erabilera diru-ordainik gabea izango da.

HAMABIGARRENA.- Erakunde bakoitzak bestearen egoitzan antolatzen dituen ekintzetan baliatzen dituen euskarrietan, egoitzaren jabea laguntzailea dela jasoko du era agerian.

HAMAHIRUGARRENA.- Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko asmoz, HABEk argitaraturikoaren euskarazko testu-multzoaz, HABE Aldizkarian sortutakoaz batez ere, baliatzeko adostasuna erakusten dute, I. eranskinean ageri diren baldintzen arabera.


HAMALAU GARRENA.- Aipatutakoak betetzeko, Euskaltzaindiak eta HABEk Jarraipen batzordea osatuko dute; batzorde horrek erakunde bakoitzeko bina kide izango ditu. Jarraipen batzordea urtean birritan bilduko da, gutxienez; hasieran, urteko plangintza planifikatzeko; eta amaieran, urteko balantzea egiteko. Behar izanez gero, Jarraipen batzordeak bestelako bilerarik ere egin dezake; horretarako nahikoa izango da aldeetako batek hori eskatzea.

HAMABOSGARRENA.- Jarraipen Batzordeak horrela erabakita, elkarlaneko beste egitasmo batzuk adostu ditzakete erakundeok lankidetzaz-hitzarmen honen babesean.


HAMASEIGARRENA.- Hitzarmen honek bost urteko iraupena izango du. Iraupen bereko ondoko epealdietan ere luzatu ahal izango da hitzarmena, baldin eta erakunde sinatzaileetako batek ez badu berau salatzen, indarrean dagoen hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago.

HAMAZAZPIGARRENA.- Indarrik gabe uzten da 2009ko apirilaren 23an alde bien artean izenpeturiko hitzarmena, haren xedea oraingo honen baitan jasotzen delako bederatzigarren atalean adierazten den moduan.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, behean sinatzen dutenak testuarekin ados daudenez gero, goian jasotako tokian, egunean eta lekuan sinatzen dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean.



CRISTINA URIARTE,
HABEren presidentea



ANDRES URRUTIA,
euskaltzainburua

I. ERANSKINA:

Egitasmoaren helburua: Lexikoaren Behatokia egitasmoaren xedea corpus monitore bat, lematizatua, etiketatua eta linguistikoki anotatua prestatzea da.

Egitasmoaren garatzaileak: Euskaltzaindia, UZEI, Elhuyar eta EHU-UPV (IXA taldea).

Lexikoaren Behatokia: hainbat hedabidek euskaraz ekoitziriko berriak (ahoz nahiz idatziz) irensten ditu, corpusaren oinarria bihurtuz. Testuinguru horretan, egun dagoen corpora aberasteko asmoz, HABE erakundeak urteetan sorturiko euskarazko testu-masa balitu nahi da.

HABEren euskarazko corpora jasotzeko baldintzak:

1. HABEk duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, baita kontratu honek indarrean dirauen bitartean sortuko dena ere. HABE Aldizkarian argitaraturiko testu-masak hartuko du lehentasun osoa.
2. HABEren testu-masa Lexikoaren Behatokian egin behar diren azterlanak egiteko erabiliko du Euskaltzaindiak, ez beste ezertarako.
3. Euskaltzaindiak aurreko puntuan aipatutakoaz gaineko erabilerarik egin nahiko balu HABEk eskuraturiko testu-masarekin, honen baimena eta onespenez idatzia beharko ditu nahitaez.
4. HABEk ez dio dirurik kobratuko Euskaltzaindiari testu-masa erabiltzeagatik, kontratu honetan zehazten den erabilerarako den neurrian.

5. HABEk emaniko testu-masatik abiatuz nolabaiteko ustiapen ekonomikoa egitekotan (izan argitalpen, zerbitzu emate edo bestelako edozein eratako diru-sarrerak sor ditzakeen ekimena), HABEren baimena ezinbestekoa izango da. Era berean, HABEk ustiapen horretan parte hartuko du, non eta ez dion espresuki uko egiten aukera horri.
6. Lexikoaren Behatokia proiektutik erator daitekeen edozein eratako lanak HABEren eskura jartzeko konpromisoa hartzen du Euskaltzaindiak, horregatik HABEk ordaindu beharrik izan gabe.
7. HABEk proiektuko partaide izateko aukera izango du, bere momentuan hala erabakiko balu.
8. HABEk HTML formatuan -ahal dela-, eta bestela, bi alderdietako teknikariek adosten duten formatuan eskuratuko dio testu-masa Euskaltzaindiari. Hori guztia, lankidetzaz-hitzarmen hau sinatu eta hilabeteko epean, eta hortik aurrerakoa, aldeek erabakitzen duten eran.